



# A G O R A

Hiri berrikuntza lantegiak *Laboratorios de innovación urbana*

---

## ÁGORA 2015. HIRI PLANGINTZAREN ETA EKINTZAREN EREDUA BERRASMATZEN.

---

### TXOSTENA

#### Organizan



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOA  
ESCUELA TÉCNICA SUPERIOR DE ARQUITECTURA  
ARKITEKTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE ARQUITECTURA



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



ESTRATEGIA 2020  
Donostia - San Sebastián

#### Patrocinan



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia

## HIRI BERRIKUNTZAKO AGORA 2015 LABORATEGIAK.

Hiri plangintzaren eta ekintzaren eredua berrasmatzen

### AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. TOPAKETA KOKATZEA
3. TOPAKETA:
  - Hiri berrikuntzako Agora 2015 laborategiak. Hiri plangintzaren eta ekintzaren eredua berrasmatzen.
  - 3.1. DEFINIZIOA
  - 3.2. HELBURUAK
  - 3.3. FORMATUA
  - 3.4. PROGRAMA
4. ANTOLATZAILEAK
- 5.- ERANSKINAK
  - HIZLARIAK
  - LABORATEGIAK

## HIRI BERRIKUNTZAKO AGORA 2015 LABORATEGIAK.

### Hiri plangintzaren eta ekintzaren eredua berrasmatzen

## 1. SARRERA

XXI. mendeko hiriak atzean utzi ditu paradigma zaharrak eta erronka berriak ditu aurrean. Hiriaren gizarte, ingurumen, ekonomia eta lurralde arloko errealitateak beste planteamendu batzuk behar ditu; izan ere, badirudi indarrean den hirigintzaren planteamenduek ez dietela erantzuten haren egungo premiei. Paradigma berriak proposatzea irtenbidea ote da?

Maila globalean sortzen ari diren erronka gehienek hiri dimentsio sendoa dute: hiriek garapen ekonomikoan, sozialean eta kulturean eta lurraldearen antolamenduan duten egitekoarekin batera aipatu behar dira hirien hazkundea, urbanizazio azkarra (lurreko bi pertsonatik bat hiri batean bizi da) eta populazioaren zahartzea, eta horietan garrantzi berezia dute baliabide eta azpiegituren kudeaketa eraginkorrak, horien iraunkortasunak, biztanleen bizi kalitateak...

Horrela, bada, hiriek garrantzi kritikoa hartzen dute gure gizartearen eta gure etorkizunaren plangintzan. Ildo horretan, Europar Batasuna hiri dimentsioa gehitzen ari da bere politiketan, horiek Europako erronka eta desafio berrietara neurri handiagoan egokitu nahian, produktibotik sozialera, ingurumenekotik eta gobernamentutik igarota.

Gizarte aldaketek, teknologia berriek, ingurumeneko ziurgabetasunek eta komunikazioaren teknologietako eraldaketek, egungo koiuntura ekonomikoarekin batera, planteamendu berrien premia jartzen dute agerian, horiekin hiri erronkei heltzeko.

Beraz, proposa da arkitektoek, hirigileek, enpresek, erakunde publikoek edo udalek gogoeta teoriko bat egitea, indarrean diren hirigintza eta plangintza analizatzeko eta tresna eta planteamendu berriak bilatzen aurrera egiteko. Hitzetik hortzera aipatzen dira joera berriak eta aplikazio eremu berriak. Hirigintza 2.0z, *smart cities*-ez edo hiri adimendunez ari gara; hiriak proiektu teknologiko eta/edo sozialen esperimentazio eremu berri gisa duen egitekoaz, *urban lab*-ez, *living lab*-ez; gobernamentuaz, partaidetzazko hiriaz, sare sozial eta herritarren esku hartzeko sare berriez; hiri berritzeaz, hiri trinkoa *versus* hiri lausoaz, hiri iraunkorraz...

## 2. TOPAKETA KOKATZEA

2005eko maiatzean, Donostiako Udalak, EHAE0-GI Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialarekin, UPV/EHUko AGET Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren ordezkartza gipuzkoarrarekin eta Donostiako Estrategia Bulegoarekin batera, arrakastaz antolatu zuten “Agora. Gure hirien hirigintza etorkizuna. Donostia eta Donostialdea. Perspektibak” ekitaldia, hiriari, hiri espazioari eta plangintzari buruzko etengabeko elkarriketa baten barruan eta gure lurralde errealitatearen barruko gogoeta teorikoaren topagune gisa.

Hiri espazioari buruzko eztabaidek jarraipena izan dute urteetan zehar; baina Agora 2015 berri honek hirigintzari, arkitekturari eta plangintzari dagozkion hirien egungo erronkei heldu nahi die eta, aldi berean, tokiko administrazioak hiriarekin eta hiri espazioaren inguruan lan egiten duten sektoreekin duen harremana sendotu egin nahi du.

Erakundeentzat, enpresarentzat, akademiarentzat, baina herritarrentzat ere baden diziplina arteko eta lanbide arteko hiri eztabaidaren esparru honek eta landuko diren gaiek badute tokia hiriaren E2020DSS estrategian, haren ildo estrategiko handietan, eta zerikusi handia Donostia murgilduta dagoen proiektu handietako batzuekin, hala nola Urumea Ekolurraldea-Smart proiektuarekin, espazio publikoen diseinu adimendunarekin, energiaren aldetik iraunkorrak diren eraikin publikoekin, GRID sistemen integrazioarekin, sare adimendunekin...

Hiri Berrikuntzako Agora 2015 Laborategi honen antolakuntzak jarraitzeko asmoa du 2016ko hurrengo edizio batean, eta DSS2016EU Europako Kultura Hiriburutzara ere lotuko da.

### 3. TOPAKETA:

## Hiri berrikuntzako Agora 2015 laborategiak. Hiri plangintzaren eta ekintzaren eredua berrasmatzen

#### 3.1. Definizioa

Ekitaldia 2015eko otsailaren 12an eta 13an izango da, Donostian, Carlos Santamaria Zentroan, UPV-EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen campusean.

Pentsamendu kolektibo baten garapena izango da, ideiak kontrajartzean eta arkitekturaren, hirigintzaren eta plangintzaren inguruko kasu praktikoen analisisian oinarritutakoa, oro har, gero modu zehatzagoan zentratzeko euskal esparruan, gipuzkoarrean eta hiri estrategia donostiarraren inguruan, eta azken emaitza begirada desberdinen eta proposamen adostuen multzo bat izango da, proiektuan gehituko dena.

Diskurtsoaren eztabaidan, iraunkortasunaz, landa/hiria orekaz, dentsifikazioaz, teknologia berriak gehitzeaz hitz egingo da; eta I+G+B industriara aplikatzeaz eta hiri eta eraikuntza arlokoarekin duen loturaz.

Jakina, politika arlokoarekin lotuko da, beti baitago oso lotua hiriarekin; egungo ekimenekin; herritarren lankidetzarekin; erabakiak hartzearekin eta proiektuen garapenarekin, eta biztanleak bere baliabide fisikoarekin duen identifikazioa eta herritarren eta agintarien arteko harremana finkatuko dira.

#### 3.2. HELBURUAK

Topaketa hauek gogoeta egiteko aukera emango dute hirien antolamenduaren berrikuntza aukerei buruz, bereziki gure kokapenaren esparru hurbilenean, egungo hiri garapenaren dinamikan.

Elkarrizketa eta eztabaida sustatzea (ikaskuntza, esperimentazioa eta sormen kolektiboa) partaide, ikasle, aditu, sektore publiko eta pribatuko hirigintzaren profesional, irakasle eta hiriarekin eta lurraldearekin lotutako erakundeen artean, eta baita hiri problematikan interesa duten herritarren artean ere.

Egungo hirigintza ereduen diagnostiko egoki bat egitea, joerak eta hiri erronka berriak detektatzea eta Donostian aplikatu edo pilotatu daitezkeen hiri berrikuntzako ereduak sortzea.

Ondorio praktiko global batzuen proposamena bultzatzea, baina batik bat Donostiako hirian eta haren eragin eremuan edo *hinterland*-ean ardaztuta, hots, Bilbo-Bordele hiri/eskualde zabalean eta barnealderako, Nafarroarako eta Arabarako haren hedapenean.

### 3.3. FORMATUA

Kongresua lau bloke tematiko handitan banatzea proposatu da:

- **Natura ingurunea:**

*Hiria eta bere ingurunea.* Lurralde antolamendua, paisaia, ekologia.

Gai hauek landuko dira: “naturalaren” definizioa eta “naturala” hirian bistaratzea; lurraldearen etengabeko “antropizazio” prozesuak, orain aldi berekoak natura ingurunearen nolabaiteko “basatze” batekin eta nekazaritzaren indarra galtzearekin; naturalaren, industriaren eta hiriaren arteko mugak; baliabideak ustiatzeko jardura edo modalitate berriak eta lurraldean duten eragina; iraunkortasunarekin edo natura ingurunearen erresilientziarekin zuzeneko lotura duten alderdiak ahaztu gabe.

- **Ingurune eraikia:**

*Hiria eta bere etxeak.* Etxebizitzaren, industriaren, zuzkidura/ekipamenduen, azpiegituren eta espazio libreen arkitektura.

Hazkunde estrategiak analizatuko ditu berroneratzean eta desazkundean oinarritutako planteamenduen aurrean, eta hiri finkatua berregituratzeko modu berriak. Hiria kudeatzeko eta finantzatzeko modu berriak aztertuko ditu, eta plangintzaren malgutasuna eta egokigarritasuna, hiri ekosistema eta ekologiarekin eta iraunkortasunarekin lotura handiena duten alderdiak aztertuta.

- **Ingurune sozial eta politikoa:**

*Hiria eta pertsonak.* Hirigintza eta dinamika sozialak, zuzkidurak/hiri berpiztea, gentrifikazioa, partaidetza, hiriaren merkantilizazioa, publikoaren pribatizazioa, auzotar mugimenduak.

Gai hauek jorratuko ditu: pribatuaren eta indibidual kolektiboaren arteko mugak, herritartasun anitza, partaidetza printzipio gisa inguruneari buruzko erabakiak hartzean; malgutasuna kudeaketan eta plangintzan egungo hiri ziurgabetasunen aurrean, eta gogoeta egingo du desazkundeaz eta hirikoaren eta landakoaren birplanteamenduaz.

- Ingurune digitala:

*Hiria eta sarea.* Ezagueraren, hirigintzaren eta errealtate areagotuaren laugarren sektorea, hiriaren georreferentziazioa, *hub*-ak, *workshop city protocol*, *smart cities*-ak.

Teknologiak kudeaketan eta hiri espazioan eta hiriaren eraldaketan duen pisuaz mintzatuko da; hiri adimenduna *versus* hiritartasun adimenduna kontzeptuez; eten digitalaz eta ekonomia berriez eta aukera teknologikoez, eta kode irekiko (*open source*) enpleguaren ahalmenez eta mugez. Teknlogiek hiri kudeaketa irekiago batean eta sormen eta eraldaketa kolektiboko prozesuetan duten zeregina analizatuko du, hiritarra subjektu politiko gisa, herritarren partaidetza, partaidetzazko tresnak eta sare sozialak.

Bloke tematiko bakoitzak (4) osoko hitzaldi bat izango du, eta laborategi bat, non aztertzeke hiru kasu aurkeztuko diren lehen eskutik.

Partaidetzazko eta lankidetzazko formatu bat planteatu da, non kasu praktikoez eta errealek tailer bakoitzaren alderdi tematiko zehatzen inguruan gauzatutako esperientziak azalduko dituzten; eta bestetik, kasu horiek ikertzekeak diren kokalekuak edo kasuak eta proposamen berritzaileak detektatzeko balioko dute. Hori guztia gogoeta konpartitu baten oinarri gisa eta erronka eta proposamenen definizioa egiteko.

Lurraldearekin eta hirigintzarekin lotutako diziplinetako (arkitekturako, ingeniartzako, hirigintzako, geografiako, ekologiako, soziologiako...) ikasleei eta jardunean diren profesionalei zuzenduta dago, eta baita hirigintzaren desafio eta erronketan interesa duten elkarteei eta pertsoneri.

### 3.4. PROGRAMA

#### 2015eko otsailak 12.

|             |                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|-------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 8:30-9:00   | Akreditazioak                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| 9:00-9:15   | <b>Inagurazioa</b>                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| 9:15-9:30   | Eusko Jaularitzaren aurkezpena                                                                                                                                                                                                                                                               |
| 9:30 -10:20 | Natura ingurunea: Jose Farina                                                                                                                                                                                                                                                                |
| 10:20-11:10 | Ingurune eraikia: Sebastia Jornet                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 11:10-11:55 | Kafea                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| 11:55-12:45 | Ingurune sozial eta politikoa: Zaida Muxi                                                                                                                                                                                                                                                    |
| 12:45-13:35 | Ingurune digitala: Manu Fernández                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 13:35-13:50 | Donostiako Udalaren aurkezpena                                                                                                                                                                                                                                                               |
| 13:50-14:00 | <b>Goiza ixtea</b>                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| 16:00-16:15 | <b>Tailerrak/laboretegiak sarrera</b>                                                                                                                                                                                                                                                        |
| 16:15-18:45 | 1. tailerra: Natura ingurunea<br>Kontalaria: Javier Puldain<br>- Galiziako Itsasertzeko Plana: Miriam García<br>- Eliako Paisaia Babesteko Plana : Eduardo Soler<br>- Urdaibaiko Erreserbako: Jon Asua                                                                                       |
|             | 2. tailerra: Ingurune eraikia<br>Kontalariak: Izaskun Aseguinolaza, Javi Martinez<br>- Bartzelonako 22@ barrutia: Aurora López<br>- Urretxu-Europar 12. Hiri egokigarria: Carlos Soria<br>- Porta del Penitents (Collserola) Bartzelona. Espazio eraikiaren eta natura                       |
|             | 3. tailerra: Ingurune sozial eta politikoa<br>Kontalaria: Koldo Telleria<br>- Sevillako Korralak. Hiritartasunak eraldatu egiten du: Eva Morales<br>- Espazio publikoaren eraldaketa Sopelan: Amaia Albeniz y Oihane Ruiz<br>- Mugimendu asoziatiboa. Can Batlló, Bartzelona: Hernán Córdoba |
|             | 4. tailerra: Ingurune digitala<br>Kontalaria: Ibon Salaberria<br>- Urumea Riverside District . Smart City: Ana Aizpuru<br>- Kultura digitala, "smart citizens" eta hiri irekia: Julia López<br>- Zaragoza Open Urban Lab: Daniel Sarasa                                                      |
| 18:45-19:00 | <b>Eguna ixtea</b>                                                                                                                                                                                                                                                                           |

#### 2015eko otsailak 13.

|             |                                                                           |
|-------------|---------------------------------------------------------------------------|
| 9:00-10:00  | 1. tailerra Ondorioak prestatzea: Javier Puldain                          |
|             | 2. tailerra Ondorioak prestatzea: Izaskun Aseguinolaza, Javi Martinez     |
|             | 3. tailerra Ondorioak prestatzea: Koldo Telleria                          |
|             | 4. tailerra <b>Ondorioak</b> prestatzea: Ibon Salaberria                  |
| 10:00-10:30 | Kafea                                                                     |
| 10:30-11:45 | Tailerretako ondorioak bateratzea (tailer bakoitzeko ondorioak aurkeztea) |
| 11:45-13:40 | Eztabaida                                                                 |
| 13:40-14:00 | <b>Ondorioen zerrenda eta ixtea</b>                                       |

Hiri berrikuntzako AGORA 2015 laborategiei buruzko informazio gehiago  
<http://www.agora.coavnss.org/> webgunean eta twitter-en: @agoraLAB2015.

Hashtag #agora2015dss

Jardunaldiak streaming bidez jarraitzeko aukera izango da.

## 4. ANTOLATZAILEAK

Donostiako Udala

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala EHAEIO-GI

UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitektura Goi Eskola Teknikoa-AGET

Donostiako Estrategia Bulegoa

Babesleak:

Eusko Jaularitza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Gipuzkoako Foru Aldundia

## 5. ERANSKINAK

### TXOSTENAK HIZLARIAK

#### NATURA INGURUNEA

Urbanizatzeko beste era bat, lurraldearekin harremanean hiriaren papera birkontsideratzea.

Hizlaria: **JOSE FARIÑA TOJO**

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko katedraduna da Arkitekturako GETean (departamentua: Hirigintza eta Lurralde Antolamendua, Arkitektura, Hirigintza eta Iraunkortasuneko Ikerketa Taldea).

Hirigintza Ikerketako Koadernoan zuzendaria, Urban eta CF+S zuzendu ditu eta zenbait argitalpen espezializaturen erredakzio kontseiluko kidea da. Zenbait lantalde eta batzordetako kidea FEMPentzat, Espainiako Gobernuarentzat eta Europar Batasunarentzat, hiri diseinu iraunkorrean.

Bere argitalpenen artean, liburu hauek nabarmentzen dira: *La ciudad y el medio natural*, *La protección del Patrimonio Urbano*, *Criterios ambientales en el diseño y construcción de la ciudad* edo *Libro Blanco de la Sostenibilidad en el Planeamiento Urbanístico español*. Hogei doktorego tesitik gora zuzendu ditu eta ehun eta berrogeita hamar komunikazio eta hitzalditik gora aurkeztu ditu nazioko eta nazioarteko kongresuetan, eta *blog* aktibo bat du (<http://elblogdefarina.blogspot.com.es>).

## INGURUNE ERAIKIA

### Hiria birziklatu, hirigintza birpentsatu

Hizlaria: **SEBASTIÀ JORNET**

Bartzelonako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko (BAGET) Hirigintza eta Lurralde Antolamendu Departamentuko irakaslea eta Arkitekto Hirigileen Kataluniako Elkartearen lehendakaria. Gainera, UPCKo eta Bartzelonako Abokatuen Elkargoko zenbait masterretako irakaslea da, eta zenbait prestakuntza ikastaro ematen ditu hirigintza eta kudeaketari buruz Kataluniako Abokatuen Elkargo Ofizialeko (COAC) Sert Eskolan.

Bartzelonako Hirigintzako Lurralde Batzorde txostengile teknikoko kidea izan da COAC ordezkatzuz, eta Terres de l'Ebreko Hirigintzako Lurralde Batzordekoa Kataluniako Udalerrien Federazioaren izenean, eta oraindik fase goiztiarretan eratzen ari den lurzoruari buruzko Kataluniako Legearen aditu batzordeko kidea da.

EHAHEko hirigintza ikastaroko hizlaria 2014ko urtarrilean; ideiak proposatu zituen lurzoruari buruzko legeria garai berrietara egokitu beharreko moduz. Legeari buruz, aurreratu zuen 2015erako idazketa berri bat izango dela, baina aurrez (urriaren 27an) bateratze lan bat izango zela prozesuaren egitura osatzen duten 6 lan blokeak tratatzeko: lurzoru motak, hirigintza tresnak, hiri finkatua, espazio irekiak + paisaia, kudeaketa eta bizitegi lurzorua eta industrialia.

## INGURUNE SOZIAL ETA POLITIKOA

Herritartasunetik hiria birpentsatzea.

Hizlaria: **ZAIDA MUXÍ**

Arkitekto eta hirigile lizentziatua Arkitektura, Diseinu eta Hirigintza Fakultatean (Buenos Airesko Unibertsitatea) Facultad de Arquitectura, Diseño y Urbanismo (Universidad de Buenos Aires), doktorea Sevillako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan Escuela Técnica Superior de Arquitectura de Sevilla eta irakaslea Bartzelonako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan Escuela Técnica Superior de Arquitectura de Barcelona. Zuzendarikidea Josep Maria Montanerrekin batera Josep Maria Montaner Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko XXI. Mendeko Etxebizitzaren Laborategian Universidad Politécnica de Cataluña. La Vanguardiako La Vanguardia Cultura/s gehigarriko kolaboratzailea da.

Ezaguna da espazio eta genero gaitan duen eskarmentuagatik (irakaskuntza “Arkitektura eta politika”, “Hirigintza eta generoa” ikasgaietan). Azken aurreko tokia izan zuen Iniciativa per Catalunya Verds-en Ricard Gomà Carmona ICVzerrendan Espainiako 2011ko udal hauteskundeetako Bartzelonako hautagaitzan Elecciones municipales de España de 2011.

Bere argitalpen artean, *El espacio público: ciudad y ciudadanía*; *Elemental, reflexiones en torno a la vivienda mínima*; *La arquitectura de la ciudad global*; *Bajo los adoquines, la playa eta Habitar el presente: herramientas para la vivienda del siglo XXI*. Visions zuzentzen du, Bartzelonako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoaren ETS de Arquitectura de Barcelona aldizkaria.

## INGURUNE DIGITALA

### Smart Cities Gizarte konektatuan.

Hizlaria: **MANU FERNANDEZ**

Ikertzailea eta aholkularia da hiri politiketan, eta hiri ekonomiaren analisiarekin, eta tokiko iraunkortasunarekin lotutako proiektuetan jardun da bere ibilbide profesionalean zehar.

Gaur egun profesional gisa hiru alorretan lan egiten du: hirigintza moldatzailearen estrategiak eta espazio hutsen aktibazioa, hiri bizitzean esparru digitala eta sozialaren arteko elkargunea herritarraren ikuspegitik, eta azkenik, hirien dinamizazio ekonomikoen proiektuen sustapena.

“Ciudades a escala humana” *bloga* du [www.ciudadesaescalahumana.org](http://www.ciudadesaescalahumana.org). Gaur egun doktore-tesia egiten ari da "smart cities-en narratiba: oinarriak eta eguneroko praktikak konektaturiko gizartean".

# LABORATEGIAK

## NATURA INGURUNEA

Kontalaria: **JAVIER PULDAIN**

### ESPARRUA:

Hiria eta bere ingurunea (lurralde antolamendua, paisaia, ekologia).

## NATURA INGURUNEAREN EDUKIA EGITURATZEKO ARDATZAK

### 1. NATURA INGURUNEA

- Badirudi jende gehienak, naturaz hitz egitean, gehiago hitz egiten duela landarediaz, “berdeaz” eraikiaren aurkakotasunean.  
Baina “berde” termino generiko hori berez hiru gauza da: natural/basatia, “antropizaziorik” gabea (ia ez dagoena gure ingurune europarrean), nekazaritza/basogintzakoa (onura eskaintzen duena, gehiengoarena landan eta minimoa hirian) eta ludikoa (parkeak, “berdeguneak”).
- Lurraldeko paisaia nagusia, nekazaritza/basogintzakoa, zerbaitek definitzen badu, bi inguruabar dira:
  - a) Gainbehera doala (nahiz eta diruz oso lagundua dagoen), eta
  - b) Horren gaineko ekintza antropikoak (urbanizazioak, pistak, errepideak...) ugariak, etengabeak direla, eta ez dira amaitzen... atzeraezinak izateaz gain.

### 2. LURRALDEAREN GEHIEGIZKO “ANTROPIZAZIOA” <> “BASATZEA”

- Batetik, badugu “naturalaren” lurraldea, bere adiera guztietan: naturala, nekazaritzakoa edo ludikoa, etengabe gutxitzen ari dela (ahitutzat jo liteke). Errepide eta bide garrantzitsuen sarea hain trinkoa da eta hainbeste hautsi du lurraldea, espezieentzat “korridore ekologikoak” ere behar dira.  
Bestetik, berriz, egiaztatu da landa nolabait bertan behera uzten ari dela, modu masiboan mendiaren kasuan: gero eta sastraka gehiago dago, basurde gehiago ere bai... eta baita zuhaitz gehiago ere orokorrean (erraz egiaztatu daiteke 1954ko airetiko argazkiak egungoekin alderatzen badira).
- Kontraesankorrak al dira bi desbideratze horiek?

### 3. NEKAZARITZAREN INDAR GALERA...

- 50eko eta 60ko urteetan etengabe lantzen zen lurraldea pinudi bihurtzen bazen, 25-30 urteren buruan mozkin bat sortzen zuena... orain, ia irteera ekonomikorik ez duenean, zer egin behar da baso horiekin guztiekin (eta oraindik landatzen ari direnekin)?
- Zer irteera dute hazten ari diren eta gero eta lurralde gehiago okupatzen duten baso horiek guztiek?

### 4. HIRIAREN MUGAK <> INDUSTRIAK

- Hirien barruan zituzten kokaleku zaharrekiko industriek duten deszentralizazio gero eta handiagoak (konektagarritasunagatik, taldekatzea errazten duen arategi batengatik, hiriaren "barruan" uzten duten orubearen gainbalioagatik...) eskuarki hiriaren ertzetan kokatutako "uharteetan" jarri ditu... baina dentsitate oso txikiarekin eta, ondorioz, lurzoru kontsumo neurrigabearekin. Batetik, banantze hori ona al da?; bestetik, dentsitate txikiko garapenen premia bizitegi lurzorian, populazioan barrura sartzen hasi dena... Eraman al liteke gogoeta hori industriara? Intentsitate ertain/handiko industria. Zer industriak har dezake bere gain? Hiriaren mugak txikitu egin al litezke horrela?

### 5. BESTE JARDUERA MOTA BERRI ETA INDARTSU/AGRESIBOAK LURRALDEARENTZAT

- Gure inguruko lurraldearen oinarritzko jarduera industrial da (argi isurialde atlantikoan).
- Ba al daude aukera/arriskuak jarduera berri eta inpaktu ekonomiko handiko jakin batzuek... erauzketakoek, adibidez, lurraldearen eskualde bat okupatzeko moduak errotik eraldatzeko?? (*frackinga*, Ipar Dakota)

### 6. NATURALA HIRIAN BISTARATZEA

- Galiziako Kostaldea Babesteko Planak, Garcia eta Borobiorenak, hiru helburu ditu: Uraren kalitatea+natura babestea+itsasorako bistak  
Garrantzitsua da itxuraz, edozein mailatan, aldarrikatzen den hori bistaratzea kontuan hartu, ahalbidetu edo sustatu nahi izatea. Hortaz, hirian, garrantzitsua izan liteke naturalaren, natura ingurunearen presentzia indartzea. Badaude bi galdera egoki:  
a) Zer da zehazki bistaratu nahi den "naturala" (hiri bakoitzak elementu jakin batzuk jar ditzake)? eta  
b) Ea benetan joan daitekeen presentzia bisual hutsetik harago, eta fisiko eta ukigarri bihurtu.

- Zergatik goستن dira proiektu/egoerak (eraztun berdeak, konektore ekologikoak, korridore berdeek elkartutako parkeak...) benetan planimetrietan soilik antzeman badaitezke? (estalki berde ospetsuak barne, arkitektoen irudizko planoetan edo *GoogleEarth*en soilik ikusten direnak).
- Zergatik ez aztertu zerbait sinpleagoa, hala nola zein den hiri eszenako elementuen presentzia fenomenologiko eta erreala (eszenikoa eta formala ere bai, jakina), eta horien irisgarritasun erreala: ura (itsasoa, ibaia), zuhaitzak, lurra lurzoruan...?  
Horrek agertoki berri batean jarriko gintuzke... eskala aldaketa bat: naturala makrotik mikrorra.
- Ez da ahaztu behar, halaber, hori guztia, zaharberritzea edo birgaitzea bezala, jarrera berria (arkitektonikoa, politikoa) dela historian: ehunka urte daramatzagu kaleetako lokatza ekiditen...

## 7. BIHUR AL DAITEKE NATURALA ARRISKUTSU (EGUNGO PARADIGMARENTZAT)?

- **Kostaldea prestatzea (berriz pentsatzea) ur mailaren igoerarako....** Zer egingo dugu kostaldearekin, enklabeekin, hiriekin, portuekin eta itsasadarrekin... 40 urtetan 80 cm-ko igoera bat ikusten badugu?  
Kanpo *polder* handi bat? Badago oso hurbileko soluzio bat: Donibane Lohizune, Napoleon III.ak antolarazia. Izango al ginateke gai Donibanen bezala hormigoizko dike handi bat onartzeko enklabe bakoitzaren aurrean, ekaitzetatik prebenituko gaituena?  
Itsasoa bisualki urrunduko litzateke kostaldeko hirietatik. Kostaldeko hiriak itsasoari bizkar emanda? Eta itsasadarrek?  
Nork hartuko du erabakia? Nola egingo da? (RIBA, Ingalaterra, "Facing rising up sea levels")
- **Egoera gehiago prestatzea... klimari dagokionez...** une honetan hautematen ez bada ere, badirudi euri erregimena beherantz aldatuko dela... landaredi desberdina. Nekazaritza produkzio desberdina? Arazorik handiena ura da... presaz betetako ibaiburuak proposatu behar al ditugu?

## KASUEN PROPOSAMENA

- **Galiziako Itsasertzeko Plana.** Miriam García García.
- **Eliako Paisaia Babesteko Plana,** Nafarroa. Eduardo Soler García de Oteiza.
- **Urdaibaiko Erreserbako administrazio arteko funtzionamendua,** Jon Asua Aberasturi.

## INGURUNE ERAIKIA

Kontalariak: **IZASKUN ASEGUINOLAZA, JAVI MARTINEZ**

### ESPARRUA:

Hiria eta bere etxeak (etxebizitzaren, industriaren, zuzkidura/ekipamenduen, azpiegituren eta espazio libreen arkitektura).

## INGURUNE ERAIKIAREN EDUKIA EGITURATZEKO ARDATZAK

### 1. HAZKUNDEA BERRONERATZEAREN ETA DESAZKUNDEAREN AURREAN

- **Hiriaren hazkundea?** Tradizioz kontuan hartutako irizpideak berraztertzea: hazkunde berrien dentsitatea, eraikuntza tipologiak, erabilerak mistifikatzea, mugikortasuna... Egin al daiteke ekarpen berririk luzaroan hitz egiten ari den gai hauei buruz?
- Edo **hiriaren desazkundea?** Posible al da? Noiz? Nola?
- **Hiri finkatuaren berrantolaketa, berregituraketa.** Zentzuzkoa dirudi espazio publikoa berrurbanizatzeko estrategiak gainditzea eremu narriatuak leheneratzeko. Birdentsifikatzeko aukera, ekipamenduak berrornitzea (ekipamenduak edo espazio libreak falta badira).

Hainbat lan esparru hiri finkatuan:

- Hiriko industria zona zaharkituak, erabilera berriak lurzoru horientzat
- Erabilerarik gabe dagoen arkitektura ondarea, nola jardun, zer erabilera proposatu
- Bizitegi auzo zaharkituak, energiaren aldetik ez eraginkorrak, irisgarritasun arazoekin, eta garai hauetarako banaketa desegokiekin, autoaren erabilera
- Esku hartzea hondar espazioetan, hondar espazioei zentzua ematea eta hondar espazio horien hiri eremu mugakideak integratzea Zer erabilerak ematen zaizkie? Publiko/pribatua?
- Zer estrategia identifika daitezke esparru horietako bakoitzean?

### 2. KUDEATZEKO ETA FINANTZATZEKO MODU BERRIAK

- **Hiri finantzaketako modu berriak:**
  - Estrahiria (egungo eredu ez eraginkorra, errealitatea gainditzeagatik) hirigintza gainbalioak kanpo zabalkundeko edo *ex novo* garapenengatik
  - Intrahiria: Baliabide ekonomikoak lortzeko eredu berriak

- Baliabide pribatuak: pribatuaren ezintasuna? Kultura falta mantentze lanetan eta eraikuntzaren hobekuntzan eta hirian
- Pribatuak publikoan berrinbertitu behar al du?
- Baliabide publikoak: beste zerga batzuk inbertitzea (ez lizentziak eta aprobetxamendu % soilik), birdentsifikatzearen ordezkoko aukera (ez beti), erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak, ustiapena publikotik pribatura lagatzea?
- Indarrean den legeriaren aukerak sustatu beharko den hiri ereduarentzat. Lurzoruaren lege zaharkitua? Birgaitzeari, berritzeari eta hiri berroneratzeari buruzko 3R-en legearen posibilitate/aukerak. Tresna eraginkorra al da? Egokituko al da premia berrietara? Ari al da aplikatzen? Zer esperientzia dago?

### 3. PLANGINTZAREN MALGUTASUN/EGOKIGARRITASUNA

- Proposatutako antolamenduen **malgutasuna**. Plangintza ez da arkitektura proiektu bat; proiektua gehi denbora faktorea da. Denborak etengabe aldatzen ditu hiri gauzatzeko behar diren agertokiak. Eraitza ona izan dadin, plangintza tresnak agertoki aldakorrera egokitzeko aukera izan behar du. Zalantzarik ez dago hiri jardunak aurre egin behar diola erronka horri.
  - Nola egin da orain arte? Eraginkorra izan al da?
  - Hobetzeko moduari buruzko gogoeta: Ulertu al da antolamendu egituratzaileak eta xehatuak zer aukera eskaintzen dituen ildo horretan? Estrategia posibleak.

### 4. EKOLOGIA ETA IRAUNKORTASUNA

- **Hiria ekosistema bat da**, non sistema guztiek orekan egon behar duten. Ildo horretan, ingurune eraikiaren barruan, ezin da ahaztu espazio librearen sistema; **ingurune eraikia ez da ezer ingurune eraikiezina gabe**. Berdeguneen etorkizuna ingurumen aldagaitik. Hiri bateko parkeak ez dira elementu unitarioak; aldiz, hiriak dakarren ingurumen deskontrola kontrolatzeko lagungarri izan daitekeen sistema bat osatzen dute. “Nekazaritza asfaltora hedatu da” edo “Biodibertsitatea hirietan instalatu da” izenburuek zer esan nahi dute ingurune eraikian?
- Nola lortu **hiri finkatua ahalik eta eraginkorrena izatea?**, baliabide kontsumo baliogabea, autosufizientzia? Hori lortzeko neurriei buruz gogoeta egitea: arkitektura iraunkorra, baliabide kontsumoa minimizatzea eta hondakinen kudeaketa ahalik eta eraginkorrena.
- Hiria, ingurune eraikiaren ahalmena natura inguruneari erabilitako lurzorua jatorrizko ezaugarriekin itzultzeko. Nola kontrolatuko dugu, estrategia aldatu behar al dugu? **Arkitekturak eta hirigintzak iragankorrak izan behar lukete**, gaur egun ez dira. Ingurune eraikiaren aztarna ekologikoa, nola alderantzikatuko dugu prozesua?

## KASUEN PROPOSAMENA

- **Bartzelonako 22@ barrutia.** Plangintza malgu bat planteatzea zona finkatu bat eguneratzeko. Aurora López.
- **Urretxu. Hiri egokigarria, hiri soziala ehunduz.** EUROPAN 12 lehiaketaren proiektu irabazlea, Urretxu\_Irimo. Carlos Soria Sánchez.
- **Collserola, Porta del Penitens (7),** Bartzelona. Espazio eraikiaren (hirikoaren) eta natura ingurunearen arteko mugak/lotura. Berta Barrio Uria y Josep Peraire Selva.

## INGURUNE SOZIAL ETA POLITIKOA

Kontalaria: **KOLDO TELLERIA**

### ESPARRUA:

*Hiria eta pertsonak* (hirigintza eta dinamika sozialak, zuzkidurak/hiri berpiztea, gentrifikazioa, partaidetza, hiriaren merkantilizazioa, publikoaren pribatizazioa, auzotar mugimenduak).

## INGURUNE SOZIAL ETA POLITIKOAREN EDUKIA EGITURATZEKO ARDATZAK

### 1. KONPLEXUTASUNA - PENTSAMENDU DIKOTOMIKOTIK PENTSAMENDU KONPLEXURA, PENTSAMENDU HIRITARRAREN ARO BINARISTAREN AMAIERA

- **Pribatuaren eta publikoaren,** indibidualaren eta kolektiboaren arteko mugak iragazkortzea, bai jabetzan, bai kudeaketan
- **Malgutasuna,** ziurgabetasunaren kudeaketa. Etorkizun esparru definituak planteatzeko ezintasunaren aurrean, ziurgabetasuna forman eta erabileretan sartzea. Plangintza eta erabilera malguak eta aldi baterakoak.
- **Espazio publiko eta zuzkiduren sarea.** Hiria espazio publikotik pentsatzea, hots, zuzkiduren oinarri den saretik.

- **Hirikoa eta landakoa birplanteatzea.** Naturaren eta artifizioaren arteko mugak iragazkortzea. Hiria beste ekosistema baten gisa ulertzea. Antropozentrismoa gainditzea.

## 2. PARTAIDETZA - PRINTZPIO GISA INGURUNEARI BURUZKO ERABAKIAK HARTZEAN

- **Hiritar tipotik hiritartasun anitzera,** indarrean den eredu patriarkal heterozentrikoa desmuntatuta.
- Ordezkaritzako demokrazian oinarritutako erabaki hartze batetik **deliberaziozko erabaki hartze** batera partaidetzaren bidez.
- **Araudi kuantitatibo batetik araudi kualitatibo batera.** Sistema metrikotik harago neur dezaketen bizi kalitateari buruzko adierazle eta aldagaien garapena.

## 3. DESAZKUNDEA

- **Tokiko eguneroko bizitzaren balioa azpimarratzea:** Erabakiak hartzean, lan produktiboaren eta erreproduktiboaren pisua parekatzea.
- **Tokikotik esku hartzea.** Aldaketa handiak mikroeraldaketetatik, aldiriko ekipamenduak.
- **Hiria berrantolatzea,** berrerabiltzea, memoria kolektiboa birplanteatzea, hirikoa giza ekosistema kultural eta ekosistema biologiko gisa.

## Kasuen proposamena

- **Sevillako Korralak.** Hiritartasunak eraldatu egiten du: Jabetza pribatuaren okupazio kolektiboa. Hiritartasunak eraldatu egiten du. Eva Morales.
- **Espazio publikoaren eraldaketa Sopelan.** Administrazioak partaidetza eta eraldaketa sortzen ditu (administrazioetik ekindako partaidetza). Amaia Albeniz y Oihane Ruiz.
- **Mugimendu asoziatiboa hiri berrikuntzarako. Can Batlló Bartzelona.** Hernán Córdoba.

## INGURUNE DIGITALA

Kontalaria: **IBON SALABERRIA**

### ESPARRUA:

*Hiria eta sarea* (ezagueraren, hirigintzaren eta errealitate areagotuaren laugarren sektorea, hiriaren georreferentziazioa, *hub*-ak, *workshop city protocol*, *smart citie*-ak).

## INGURU DIGITALAREN EDUKIA EGITURATZEKO ARDATZAK

### SMART CITIES edo “azkarra da hiria”:

#### 1. FEDEA TEKNOLOGIAN

Eremu digitalak gogoberotasun handia sortzen du gaur egun hiri kudeatzaile eta enpresa teknologikoen artean. Hiri baliabideen kudeaketan aplikatutako teknologiek erlazio mapa berri bat proposatzen digute, hiri kalitatearen hobekuntzaren ikuspuntutik analizatu beharrekoa.

- Aurreko ereduak (Homo Ludens 70´s)
- Gehiegizko teknologia egindako kaltea zuzentzeko
  - Monitorizazioa?
  - Ingurumen estandarrak zuzentzea... (“desazkundearekin” zerikusia du)

#### 2. HIRITARTASUN ADIMENDUNA

Badirudi gauzen (eraikinen, kaleen, baliabideen erabileraren...) “adimena” askoz aurrerago doala hiriko espazioetan “adimen konpartitua” berreskuratzeko premia baino.

Egungo eztabaidak zalantzan jartzen du hiriari erantsitako gailu teknologikoek onurak sortzen dituzten hirikoa kudeatzeko soilik, edo nola beste iritzi batzuek aurrera egiten duten, partaidetza eta ezagutza sareak iruten laguntzen duten orain arte hiri eztabaidatik kanpo zeuden talde sozialak berreskuratzeko.

- Hiri adimenduna edo hiritartasun adimenduna (Homo Relatio)
- Norentzat?, (ez al dago pobrezia teknologikorik?)
- Hiria gailu teknologiko gisa?

- Kontrolerako gailuak? (hiriaren formak ez du axola orain)
  - Espazio publiko instituzionalizatua
- Edo hiritarra subjektu politiko gisa (partaidetza ingurune asoziatiboetan)
  - Partaidetzazko gailuak
  - Espazio publikoa, ondasun komuna

### 3. PATENTEAK vs OPEN SOURCE

Patenteak eta merkatuak talka egiten dute kode irekiko ekimenekin. Hiritarrak subjektu politiko gisa gardentasuna eskatzen du “hiriko komun” kudeaketan. “Adimen hiritarraren” prozesuak hiritartasuna ahalduztzera bideratuta al daude benetan?

- Merkantilizazioa edo lankidetzako proiektuak
- Ba al dago beste finantzaketa biderik “ber-oneratzeko”?
- Ekonomia berriak eta aukera teknologikoak erkidegoan
- Enpresen ehunaren eginkizuna

### Kasuen proposamena

- **Urumea Riverside District - Smart City** . Ana Aizpuru.
- **Kultura digitala, “smart citizens” eta hiri irekia**. Julia López Ventura.
- **Laborategi hiritarra. Zaragoza Open Urban Lab**. Daniel Sarasa.

## *Antolatzaileak*



ESTRATEGIA 2020  
Donostia - San Sebastián

## *Babesleak*

